

GIL 108 Alluitz mendiko elurtegia



Alluitz mendiaren hego-aurpegia, bi kubetak, kanalak eta beheko kolubioiak ikusten direla.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 06' 33,66" N
Long.: 2° 37' 23,17" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 530.657,93 m
Y: 4.773.113,92 m



Nola iritsi

Durangotik Elorriora doan BI-632 errepidean, hartu Abadiñoko irteera, eta jarraitu Mendiola seinaleari Atxarteko harrobiraino. Handik, hartu ibarrean sartzen den pista. Pistatik, Alluitz hormatzarraren ikuspegi bikaina izango dugu.

GILaren deskribapen laburra

Alluitz mendiaren gailurreria Kretazeoko (Aptiar-Albiar) kareharri urgondarrez osatuta dago, zeinak giro subtropikaleko eta sakonera txikiko plataforma karbonatuetan eratu baiziren eta eduki fosil ugaria baitute; fosil nagusiak koralak, moluskuak eta orbitolinak dira.



Hormaren behealdean metatutako kolubioien xehetasuna.

Material horien antolaera bertikala izateak eta faila eta diaklasen eraginpean egoteak erraztu egin dute higadura; hala, gailurreria zorrotz eta luze bat sortu da, ia 1.000 metroko desnibela duena ibarraren hondotik. Diaklasen aldeko higadura bizi horrek desnibel handiko kanalak eratu ditu; haietan barrena amiltzen dira arroka-zati higatuak. Kanal horien oinean, kono-formako kolubioi politak eratzen dira.

Alluitz mendiaren hego-aurpegiaren ezaugarri nabarmenenetako bat depresio subzirkular bat da, oso horma bertikalak dituena. Ziur asko, han elurtegi bat izango zelako sortuko zen, hau da, zirko glaziar bat eratzeko lehen urratsa izango zen; ez zen garatu, baina hormak higatu zituen.

Behatzeko punturik onena

Amillagako ibarra.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 34, GIL 19.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 107, GIL 111, GIL 112.



Haustura nagusiaren eta haren oinean eratutako alubioi-konoaren xehetasuna.



Alluitz mendiaren elurtegi posibleetako baten xehetasuna.

Valoración del LIG

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				●
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala		●		
	Estratigrafikoa			●	
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala: Urkiolako zingirak.					
Oharrak:					

Bibliografia espezifikoa

- Fernández-Mendiola, P.A. (1987): "El Complejo Urgoniano en el sector oriental del Anticlinorio de Bilbao". KOBIE, nº XVI, p. 184
- <http://www.eve.es/publicaciones/cartografia/Mapas/87-II.pdf>
- Bizkaiko Foru Aldundia (1990): *Bizkaiko interes geologikoko guneak. Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila*. 270 or.